

AZKOITIA / Aizkibel Liburutegiak ipuin kontaketa saioekin hasiko da gaur Maite Frankorekin

AZKOITIA. DV. Aizkibel Liburutegiak ipuin kontaketa saioekin hasi behar du urriak 10ean.

Maite Franko izango da kontalaria herriko bi ikastetxeentzako ikasleentzat. Goizeko 10tan Floreaga eta 11tan Ikastolakoez izango dira.

Maite Frankok, bakarka kontatzen ditu ipuinak eta 2004. urtean hasi zen kontaketa.

Nahiz eta heldu eta gazteentzat zuzendu, bereziki haurrentzat prestatzen ditu eta ia beti liburutegietan.

Haurrentzat idazten du eta liburu bakarra argitara eman du, Ixone isilik (2004), Aizkorri argitaletxean. Zenbait antzezlan ere idatzi ditu.

Bestalde, Juan Carlos Alonso psikologoak "Ipuina eta emozio hezkuntza" izeneko hitzaldia emango du bi saiotan banatuta.

Guraso eta hezitzaileei zuzenduta dago eta goizeko 11:30ean izango da urriak 20 eta azaroak 17an, larunbatak biak. Bertara etortzeko liburutegian gonbidapenak jaso daitezke.